

AZKEN BELTZA

Abalziketa egintza bakarrean

Kayetano Sanchez Irure'k
idatzia
eta 1915^{garren} urteko indarneurteetan
sartua

Egintzalleak

Olaso	Jošepa	(Martzelo'ren ama)
Aranburu	Karmen	(Martzelo'ren illoba)
Arieta	Katalin	(Sukaldeko langillia)
Egileor	Martzelo	
Arozamena	Karlos	
Beorlegi	Juan	(Morroya)

Ezker-eskubiyak egintzalleenak

Egintza bakarra

Iruditegia moldatu bear da echeordeko baten antzera, traste bazterreaturako batzuekin eta zelai ta baratza lanketarako oituratzen diran tresnakin.

Lenbiziko Irudia I Martzelo ta Jošepa

Martzelo azalduko da ezkerrian leyotik begira, kanpoko edertasunaz oso zoraturik. Jošepa sartzen da atzeko atetik.

- Jošepa ¿Oraindik etzera aspertu leyo ortatik begira?
- Martzelo Ama, aspertuko naizenik ere ez det uste.
- Jošepa Ichurak ala dira.
- Martzelo Urtiak eta urtiak ichasoetan igaro ditut, baña ez det egun bat bakarra izan, leyo ortatik ageri dan baztar zoragarriyaz gogoratu ez naizenik.
- Jošepa Siñisten det.
- Martzelo Bost urte dira etorri nitzala, eta geroztik leyo ortan, zoraturik, igarotzen dira nere ordurik geyenak eta gogotsuenak.
- Jošepa Ikusten degu bai.
- Martzelo (*Leyora inguraturik*) Begira ama: ara an urrutiyan Donostiya, zillarrezko katillu ederra, lekurik chukun eta osasungarriyena, erririk alai eta pozgarriyena.
- Jošepa Ba, bai: donostiarrak ez ditu amar milla duro biar, bera eta bestiak tun-tuna bañore alayago jartzeko.
- Martzelo Begira ondoan ichasoa, oñak miliškatzen dizkala bere afar arro jostalluakin, Igeldo'ko mendi-aldapa atsegiñean jauregi polit, apañak, erritarrak baserritarrei agur egitera aurreratu balira bezela. Eta emen, tontor tontorrean, nekazarien zelatari dirudiela, "Arburu'ko" baserri-eche, sendo, portitza, atariko lau suaitzen itzalpe estitsuan bere sarrera-nagusiya gordetzen dubela. Ara an zelaicho loretsuaren ertzian "Arriyolene", baserri zabal ta pacharakua, amak aurra gonetatik elduta oi dun bezela, aldamenian eche ordeko koškorra

daukala. Alderdi ontan, ageri du mutur bat
"Mugoitza'ko" baserriak...

Jošepa ;A, bai! Ez badakizure...

Martzelo Garoneta aundi, oparua, aurrian dauka...

Jošepa Ba, bai. Baserri ortan dago neskacha bat, nolakua bera.

Martzelo ¿E?

Jošepa Mikela Antoni; neskacha eder bikaña, azkarra, biziya,
langillia, zintzua...

Martzelo (*Leyotik alde egiñaz*) ¿Eta... ez alda inguruan alako
mutil gazte...?

Jošepa Aizpuru beko, Migel Martiñ. Batak bestiarentzat egiñak
dirala dirudite.

Martzelo Baña ama, ezkontzak somatzen ari ez dan bitartian
onik ez dauka.

Jošepa Neskacha gajo oyek ere norbaiten laguntza biar dute.

Martzelo Egunak dituben ordubak ortan igarotzen zaizka, edo
bestela trukian, kanta zarrak diyon bezela egiñaz:
(*Kantari*)
 Labarekin irubaren
 keñuba

 (*Ešertzen da eskuiko alki batian*)
 Ja! ja!

Jošepa Gezurti

Martzelo Beorri bizi bada, inguru abetan ez du gelditu biar
neskazar batek ere.

Jošepa ¿Eta gaizki arkitzen al dezu?

Martzelo Ori, berak esango diyote... ezkondu ta gero.

Jošepa Ezkondu baño len, ta ezkondu ta gero, eskerrak ezin
emanik gelditzen dira.

Martzelo Obe, obe.

- Jošepa Begira: neskachak kolokan dagon ortzak bezela izan oi dira; mingañarekin ibilli batera ta bestera, ta beti ortza bere lekuban. Neskacha gaztiei ere ori bera gertatzen zayote. Ezkontzeko zaleturik dantzatu mingaña batera ta bestera, eta berak berian egon. Piška bat laguntzen bazayote, ezkontza egiña da.
- Martzelo Baña, ama: nor bere ortzakin sayatzia ongi arkitzen det, baña, ¿zer ikusteko degu besteren abuan?
- Jošepa Nor bere echean ez daukanian zer egiñik, kanpuan billatzia tajuzkua iruditzen zait.
- Martzelo ¿Echian ez daukala?...
- Jošepa Zurekin beintzat ez.
- Martzelo A, ez! ama! Nik onezkero andre gaya baño, ollo-salda koipetsua nayagoko det. Baña, ¿ez dauka echian ere ezkontza antolatua, nere illoba Karmencho ta morroyarekin?
- Jošepa ¿Orire gaizki arkitzen al dezu?
- Martzelo Ez daukat zergatik gaizki arkitu biarrik. Bakarrik, len esan niyon bezela, Karmencho oraindik gaztechua iruditzen zait.
- Jošepa Emeretzi urte ditu, Martzelo, emeretzi urte; ta sasoi ortara irichi dan emakumiak, zer edo zer pentzatzen asteko garaya badu, bada ogeitik aurrera abiyatu ezkeronezkazarren mallak aguro achitzen dira.
- Martzelo Ez dauka orlako bildurrik beorri aldamenian badago.
- Jošepa Gañera Juan, ezin ta obia da.
- Martzelo Ala da; murru šamarra izatia, baña langille amorratua.
- Jošepa Artakua ta gogotsua
- Martzelo Egi, egiya, da; eta batian esateko, aitortuko diyot ezkontza ori ongi arkitzen detala. Baña, Jaungoikuaren izenian, ez bedi geyago kanpoko nezka-mutill guziyen ezkontzak maniatzen.
- Jošepa Orire esan.

Martzelo Inguruko auso guziyakin aserretu biar degu. Tolarechikikuak begiratzten ere ez digute...

Jošepa Ez nozki, ayek nai zuten echian sudurra sartu etzutelako.

Martzelo Errotaberrikuak gu gandik itzuli dabilta...

Jošepa Bai bada: ango Nikolaš, Aitzburuko Klotildechorekin ezkontzeko egunetan zegola, zenargai bat obia billatu niyon nik, eta, ¿zer egingo zuben neskachak? onenarekin gelditu.

Martzelo (*Alchatubaz*) Beraz itz emana egon arren, obiagokoen bat aukeratzen bada, lengua bazterreratu?

Jošepa Nozki.

Martzelo Ori orrela bada, nere illoba Karmencho'ri zenargai bat obia, esan nai da diruduna, zergatik beontzat ona ta charra, diru asko edo guchi izatia da; zenar-gai dirudun bat agertzen dan egunian, morroi gizarajua aidian bigaldu biarko degu?

Jošepa ¿Zer egingo diyogu bada? Obia aukeratu ezkeru...

Martzelo ¿Eta itz emana...?

Jošepa Gauza abetan, itza ta atariko aizia berdiñak dira.

Martzelo Ama, gaizki dijua, bide ortatik badijua. Itza da gauza bat, biziya degun bitartian eutzi biar diyoguna, gure asken asnasakin batian ito bear dana. Bere itza jaten duben zorigaiztoko umeari etzayo arpegira begiratu biar ere.

Jošepa Gizona, etzaitia beñepin aserretu orrengatik.

Martzelo Morroi gizarajuari, agindu, itz eman, eta zoratzeko zoriyan jarri dutenian...

Jošepa ¿Zer? ¡Karmenchore'kin ezkondu!

Martzelo Ez da ori len esan dirana.

Jošepa ¿Nun uzte dezu billatuko lukela Karmencho'k Juan bezelako zenar-gai bat?

Martzelo Ori besterik da.

Jošepa Zure illoba ta morroya ezkonduko dirala ez ezparik batere izan. Ez daukat Juan orrela baztartzeko. Ori bezelako mutill ona, langillia, zintzua... A! ¡Ara bera!

Bigarren Irudia
II
Lenguak eta Juan

Juan (*Atzeko atetik sartuaz*) ¿Nagusiya emen aldago?

Jošepa Bai orchen daukazu.- Bazatoz zu orain ere, lana gogotik eginta. Zuretzako izango da, zuretzako, gure Karmencho. (*Bizkarrian juaz. Gero juaten da Jošepa atzeko atetik.*)

Juan Eskerrikasko.

Martzelo ¿Zer degu?

Juan Berri charra

Martzelo ¿Charra?

Juan Bai. Azeriyak errubian, sarrera ederren bat egiñak izan biar dute bart arratsian.

Martzelo ¿Zer bada?

Juan Ollotaldetik, iru guchiyago badira.

Martzelo ¡Deabru pola! ¿Ez ote dira gero ijituak, olloz jabetu diranak?

Juan Ez det uzte; alakorik izan bazan, gure zakur Pinto ernayak, zalatuko zitun.

Martzelo ¡Milla deabru! Beraz zuri, ¿azeriyak dirala, deritzazu, licharkeri ori egin dutenak?

Juan Nere iritzirako bai.

Martzelo Beti zerbait biar degu, ta orra...

Juan Bat bezelare, iru.

Irugarren Irudia
III
Martzelo, Juan, Karlos

(Azkeneko itzak bitartian sartuko da Karlos atzetik, eta asiko zayo keñuka Martzelo'ri)

Martzelo ¿Zein degu ori?

Karlos ¿Ez al nauk esagutzen?

Martzelo ¡To! ¡Orainchen! ¿Zer abill Karlos?

Karlos I ikustera motell

Martzelo ¡Bejondaikala!

Karlos Emen bizi aizela, esan ziatek, errege bere jauregiyan baño lasayago, ezeren keskarik gabe...

Martzelo Orain, orain bezela, asmatu dek, to.

Karlos ¿Zer bada?

Martzelo Morroyak esango dik. ¡Iru ollo jan zizkiatek azeriyak!

Karlos Ez ditek gozari charra egin.

Martzelo Guk baño obia.

Karlos Azeriya... ¿ez ote da gero morroya bera?

Juan ¿Nik? ¡Orlako griña charrik ez det nik beñere izan!

Martzelo ¡Ez, mutil zintzua dek!

Karlos Etzekiat bada, morroyak tripazayak izaten dituk geyenian...

Juan Orlako zitalkeririk ez dit iñork oraindik arpegira bota.

Martzelo ¿Zer da? ¿zer da? ¿Zer dira arrazoi miñ oyek?

Juan Morroya naizelako zernai gauza esan lezakeala uste aldu orrek.

Martzelo Aski da, aski da.

Karlos Motell: ja zer kirtena aizen!

Juan Ni kirtena banaiz, zu kaikuba izango zera.

Martzelo Zaude išillik. Zuaz nai badezu; eta birez esan zayozu Kataliñ'i oneraño datorrela.

Juan Zarpaill ori, ez besteren zarpaill ori...
(*Marmarizoka juaten da atzeko atetik*)

Laugarren Irudia
IV
Martzelo eta Karlos

Karlos ¿Ikusi duk, motell kirten orren aterakaiya?

Martzelo Eorrek ortarako oñ eman diyok.

Karlos Ori mingaña...

Martzelo Adiškidia: aurriak erakuzten dik, atzia nola dantzatu.

Karlos Ez dakak motell charra echean.

Martzelo ¿Ori? Morroirik izan liteken langilliena, zintzuena...

Karlos Ez dik ichurik

Martzelo Laga zagun ori alde batera. - Ešeri gaitian.

Karlos Nai dekan bezela.
(*Ešertzen dira*)

Martzelo Oraindik Ameriketean itzala uste nikan. ¿Noiz etorri aiz?

Karlos Orain bost illabete. Diru piška baten jabe egin nindukan; eta nere artian esan nikan: nuan Euskal errira.

Martzelo Ederki.

Karlos Lau egun bizi biar baditugu, igaro ditzagun gure choko atsegiñean.

Martzelo Ta, ¿nola ez aiz lenago nigana etorri?

Karlos Legorretan izan nauk: anai, lengusu, ta illobakin egun batzubek igarotzen.

Martzelo ¡Ederki egin dek!

Bosgarren Irudia
V
Lenguak eta Katalin

Katalin (*Atzeko atetik agertuaz*) ¿Zer nai du nagusiya?

Martzelo ¡A! ¿Emen altzera? Tira, jaun onek gurekin bazkaldu biar du...

Karlos Ez diat oraindik ezer esan.

Martzelo Esan biarrik etziok. (*Katalin'i*) Au gero, ondo jaten oituba dago...

Karlos Ez Martzelo beziñ ondo.

Martzelo Eta bazkari on bat jarri biarko dezu.

Karlos Bai, nere aitzekiyan orrek nai du bazkari ona.

Katalin Orainchen ari nitzan amorrarak garbitzen.

Martzelo Bada, jarri itzazu sei geyago, edo zortzi, edo amar; jaun au zale aundiya da gero.

Karlos Ez, oyek bere kontubak dira.

Katalin Izango dute biyak ere, batak bestiaren antza.

Martzelo ¡A! Ta, zu... atzoko egun sentiyen ill nitun ollagorrak maniatu biarko dituzu.

Katalin ¿Beorrek illak?

Karlos Ara, ara...

Martzelo Bai. ¿Ez al zera oritzen?

Katalin Beorri baño eiztari oberik ez bada iñon, ollagorrak osasun onakin egan egingo dute lasai.

Karlos To ollagorra, to.

Martzelo Dana dala, bazkari on bat jarri zazu beñepin.

Katalin Zer edo zer egingo degu. (*Juaten da atzeko atetik*)

Seigarren Irudia
VI
Martzelo ta Karlos

Karlos Neska biziya ziruike orrechek.

Martzelo Eta sukalde lanetan oso artakua... moku gošo batzubek jartzen dizkik, nolakuak; ikusiko dek, ikusiko dek.

Karlos Ta langintza guztiyak, ¿neskacha orrek, eta lenoko morroi chachu arrek egiten al dizkitek?

Martzelo Ez; neskach ori sukalde lanetarako bakarrik zeukat. Bi morroi geyago badizkiat.

Karlos Biarko dituk.

Martzelo Badakik: arizti eder bat bazeukat oso ugariya, belar-soro aundi bat ere bai; eta echian berriz, sagarduak egiteko tolare ederra.

Karlos Badaukak zer egiña.

Martzelo Bai. Gañera bazeuzkat: ollotalde ederra, sei bei, lau idi, bi asto, iru zekor gazte, zezen estalkoi bat eta akerra bi auntzekin.

Karlos ¿Geyago ezer ez?

Martzelo Akuriyak.

Karlos Eta, ¿geyago?

Martzelo Zera, ¡Zanpantzart izango diat!

Zazpigarren Irudia
VII
Lenguak eta Jošepa

- Jošepa (Atzeko atetik sartuaz) Beraz orain ere, ašeriyak egin digute, ez egitekua?
- Martzelo Ala diruri
- Karlos (Martzelori) ¿Zeiñ degu andre au?
- Martzelo Ama.
- Karlos Bizi danik ere, ez diak esan. (Jošepa'ri esku emanaž) ¿Zer diyo echekoandre?
- Jošepa Osasunez ondo, ¿ta zu?
- Karlos Ni chit ondo. ¿Bedorri da beaz Martzelo'ren ama?
- Jošepa Bai, serbitzeko.
- Karlos Urte askoan.
- Jošepa Ta zu, ¿zein zaitugu?
- Karlos ¿Ni? Martzelo'rekin artzantzan urte askuan Amerikan ibilliya.
- Martzelo Au da bada, Karlos; bein baño geyagotan aitatu diyotana.
- Jošepa A! Karlos! Bai, bai, Karlos. Gogoatzen naiz bai.
- Martzelo ¡Gogoatuko ez da bada!
- Jošepa Bai, bai. ¡Zu zera beaz Karlos!
- Karlos Ber bera
- Jošepa Bai, bai. ¿Zu ere diruz ondocho etorriya izango zera nozki?
- Karlos Martzelo'k aña ez det ekarri bañan zerbaiten jabe banaiz.
- Jošepa Zuk ori diyozunian izango da zerbait baño geišiago.

Martzelo Bai, bai; baditu, baditu.

Karlos Zer bait... apur batzuk...

Jošepa Um... Ta, barkatu, bañan, ¿ezkongai al zaude oraindik?

Martzelo (Bere zetara badijua)

Karlos Bai andria, ez daukat ezkongai iltzeko asmorik baña oraindikakuan ala nago.

Martzelo (*Jošepa'ri*) Oyek galdeerak egiten ditu ama

Jošepa Elkar-izketak ekarri oi dituenak seme. (*Karlos'i*) Etzazula uste, ezkondata okerrago izango ziñakenik.

Karlos Uste orretan nago neroni ere; ta oyek orrela dirala, ta, itzai beren bidian jarraituaz, ta, ¿ez al dauka neretzako moduko alaba bat?

Martzelo (¡Galdubak gera!)

Jošepa Alabarik ez daukat, baña emazte baten jabe izateko zaleturik bazaude, bat egokituko dizut...

Martzelo Nik chiništu, iñun neskarik badago.- Mutill elduko ditek eta guazemak, guazemak baztar abek ikustera.

Karlos Ago piška bat. ¿Beraz andregai bat egokituko dit?

Jošepa Bai; ta nere echetik bestetara joan gabe.

Martzelo Ama: ezin liteken gauza ezkeintzen ari da.

Jošepa Eziñik ez dago.

Martzelo Bai, badakit nora dijoan; baña gogoratu bedi, geok arildu degun mataza urratzia, zalla izan leikiala.

Jošepa Zer izan biar du.

Martzelo Orain ezkeintzen dubena, besteri aginduba dagola; geok beren biyotzetan sua pištu degula...

Jošepa Itzalire azkar egingo degu.

Martzelo Nik ez beintzat. Eta gauza ortaz, ez det itz egiten ere aditu nai. (Zeta madarikatu orrekin.)

(Marmarizoka juaten da atzetik)

Zortzigarren Irudia

VIII

Karlos eta Jošepa

- Karlos Martzelo oso asarretu zaigu.
- Jošepa Ez du asko iraungo ez orren aserriak. Orlakošia da. Badakizu, mutil-zarra izan...
- Karlos Baña, ¿zer dala ta jarri da orren asarre?
- Jošepa Esango dizut: igarri du Martzelo'k, nik esaten nizun neskacha, nere billoba dala, nere seme bigarrenen alaba bakar eta umezurtza; eta nola onek itzen batzubek izan dituben nozki morroyarekin; eta nola Martzelo'rentzat morroy'ori, ezin ukuitu liteken zerbait izan biar dun...
- Karlos ¡A! Lenago emen zegon morroi chachu bat izango da nozki?
- Jošepa Ber bera.
- Karlos Igarri diot bai Martzelo'ri, bere arrekin zoratua dagola. ¡A zer kirtena den!
- Jošepa Zer nai dezu bada. Baña alde ortatik ez keskarik izan; Karmencho, nere billoba, zuretzat izango da.
- Karlos ¿Karmencho da beaz?
- Jošepa Bai: mirabe gazte oso ederra, langillia, zintzua; ta garbi ta chukun zalia, beste iñor ez bezelakua.
- Karlos Bañan ni, urtez aurrera šamartua nago, eta ¿naiko al nau orlako mirabe gazteak?
- Jošepa Nik esaten dizutanian chiništa zenezake.
- Karlos Orduan, ¿deituko al diyo nik ezagutu dezatan?
- Jošepa Berialaše. Baratzan ari biar du.

Bederatzigarren Irudia
IX
Lenguak eta Karmencho

(Jošepa juaten da atzeko atera ta irrintzi egiten du. Une berean Karmencho'ri oju egiten dio barrutik.)

- Karmencho *(Barrutik)* ¡Amona!
- Jošepa ¡Nere izarra! ¿Emen al zera?
- Karmencho *(Barrutik)* Bai andria.
(Sartzen dira amona ta billoba. Arrek estul egiten diyo Karlos'i igarri dezan Karmencho dala andregaya.)
- Jošepa ¿Zer dakartzu?
- Karmencho Otarchuaren billa nator, marrubiyak biltzeko. *(Karlos ikusirik)* Jainkuak egun on diyola.
- Karlos Bai zuri ere, gazte.
- Jošepa Zure osabaren lagun aundiya da jaun au.
- Karmencho Orduban, ¿beorri izango da gurekin bazkaldu biar duna?
- Karlos Ala diyote...
- Jošepa Bai, bai. Aušen da. Karlos. Zure osabak anaya bezela maite du.
- Karmencho Esagun da. Orrengatik esan dit marrubirik onenak biltzeko.
- Jošepa Onenetan onenak.
- Karlos Orrenbesteraño ez.
- Jošepa Bai, bai: onenetan onenak.
- Karmencho *(Alde guzietara begira egongo da, ta azkenian ikusten du otarchua Karlos'en atzian.)* ¡A! Or dago otarchua. *(Karlos'i)* Barka bezait.
- Karlos Ez daukazu nere barkapenaren biarrik.

Karmencho *(Otarchua artu ta atzeko ate aldera)* Orain banijua marrubiyen billa.

Jošepa Ekarri itzazu onera ta garbitzen lagunduko dizut.

Karmencho Beriala emen naiz

Karlos Zuaz ondo gazte.

(Juaten da Karmencho atzetik saltoka bere otarrachuakin.)

Amargarren Irudia
X
Karlos ta Jošepa

Jošepa ¿E? ¿Zer deritzazu?

Karlos ¡Ori mirabilia! ¡Neretzako izan biar dula esatiak ere...

Jošepa Zuretzat izango da bada.

Karlos Ume bat bezela, dar-dar laga nau. Zerbait esan nai ta ezin asmatu. ¡Gezurra dirudi! Mingaña korapillatzen zitzaitan. A! Begiyakin itz egin albaliteke. ¡Zeren gauza šamurrak esango niyozkan!

Jošepa Ortaz etzazula keskik iruki. Neronek itz egingo diyot.

Karlos ¿Beorrek?

Jošepa Bai; nik jakingo det lenengo bere iritziya. Eta badakizu arren iritziya neri beria izango dala.

Karlos Beaz, beorren gain lagatzen det neskachari itz egitia.

Jošepa Bai, bai.

Karlos Ta beriala esango dit neskachak zer diyon.

Jošepa Berialaše.

Karlos Echekoandre, ¡zoratu biar zait!

Jošepa Eta nik atsegin det.

Karlos Beaz, beorren gain gelditzen da guziya, ¿ez da ala? eta ni orain Martzelo'ren gana nua; onezkeru luzatzeik egongo da ta.

Jošepa Zuaz bai, zuaz keskik gabe. Zure ezkontza gaur, antolatua geldituko da.

Karlos ¡Ederki! (Ori mirabe ederra!) (*Juaten da atzeko atetik.*)

Amaikagarren Irudia
XI
Jošepa ta Karmencho

Jošepa ¡Geldituko dan bezela! Abora etorri orlako dirudun zenar-gaya, ¿eta laga morroi ziztriñ baten gatik? ¡Ez oriše, ni iñor banaiz.

Karmencho (*Otarracho marrubiz betekuakin, atzetik sartuaz*) Emen naiz, amona.

Jošepa A! ¿Ba aldakazkitzu marrubiyak?

Karmencho (*Alki baten gañian lagiaz*) Ara beorrek esan bezela, onenetan onenak.

Jošepa Alašen da: ederrak dira.

Karmencho Beriala garbituko ditugu. Ur billa nua orain. Sarri emen naiz. (*Artzen du balde bat eta juaten da atzeko atetik.*)

Jošepa Bai; bitartian beste otarcho bat billatu biar det, marrubiyak moldatzeko chortenak kendu ala. (*Billatubaz*) Emen zan bada nonbait atzo arratzaldian ¡A! Ara non dagon (*Artu ta moldatzen ditu alkiyak*) Alki au Karmencho'rentzat. Beste au neretzat.

Karmencho (*Atzetik balde urakin sartuaz*) Amona, ara emen ura.

Jošepa Jarri zazu emenche.

Karmencho (*Jarriyaz*) Ara bada.

Jošepa Ešeri zaitia or. Ni, emen.
(*Ešertzen dira, ta urtan sartu ta atera egiten dute otarchua, marrubiyak garbituaz.*)

Ederki. Ta ontan ari geran bitartean, neretzat atsegingarriya dan albista bat eman bear dizut, nere izarra.

- Karmencho Eta, ¿neretzat ere ala izango alda?
- Jošepa Bayetz uste det. Ondo garbituak daude marrubiyak; baztartu zazu ur-ontziya, ta atoz nere aldamenera, chortanak kentzen asi gaitian.
- Karmencho Nai duben bezela.- ¿Eta nere gogoko albiste'ren bat alda, len aitatu dirana?
- Jošepa Neretzat ala da beñepin, eta zuretzako ala dan edo ez, orain jakingo degu; nik bayetz uste det.
- Karmencho Ia bada.
- Jošepa Aištiyan emen ikusi dezun gure gaurko bazkaldarra, osabaren lagun aundiya da, anayak bezelaše maite dira. Izan ere alakošia da bera. Arpegiyan ere esagun du.
- Karmencho Bizarrez beintzat, ondo da.
- Jošepa Bizarrez, eta diruz ere bai. Ameriketatik etorri berriya da, ta erruz izan biar du.
- Karmencho Obe beretzat.
- Jošepa Bai nozki; ta iduritzen zait zer edo zer egingo ote gendukian zuek biyakin.
- Karmencho ¿Zer gu biyakin amona? Zer esan nai diran, ez naiz konturatzen.
- Jošepa Itz erdiya guztira osatzeko, gaztechua izan zu oraindik, Karmencho. Atoz onuntzago, alderatu zaitte nigana. (*Karmencho alderatzen da.*)
- Karmencho Bai amona, bai.
- Jošepa Adi zadazu ondo, ta iritziyari deitu bide zuzenez. Zure osaba ikusdatzera etorri dan jaun orrek, zure berri jakin nai luke.
- Karmencho ¿Nere berri amona? Ez aldaki bada beorrek nik bezin ondo?

Jošepa Ala esan liteke; bañan badira gauza batzuek ašaleratzen ez diranak; eta orra, oyetako baten jakin naya daukat, Karmencho.

Karmencho ¿Ez kutuko gauzik, ni gandik jakin nahi aldu, amona?

Jošepa Alašen da bada. Alderatu zaite geišiago, Karmencho. (*Alderatzen da*)

Karmencho Esan bezait azkar, amona, ni gandik zer jakin nai duben.

Amabigarren Irudia
XII
Lenguak eta Juan

Jošepa Bada, Karlos'ek, zure osaba'ren lagun orrek, jakin nai luke, ezkontzeko itza emango ote zeniyoken.

Karmencho ¡Nola!

(*Une onetan, Juan, šešto bat buruan eta soka eskubetan daramazkiyela igaroko da atzian batetik bestera; eta azkeneko itz abek entzuteakuan geldituko da oso arriturik izketa entzuten.*)

[Jošepa] Diruz ondo dagola esan dizut, ta orlako chori aberatzari, etzayo al bada, eskutik igez egiten utzi bear.

Juan (¿E?)

Karmencho ¿Zer esaten dit, amona? ¿Ez aldaki bedorrek, len ere itza giltzapetua daukatala?

Jošepa ¿Giltzapetua?

Karmencho Bai amona, bai. Osaba ta beorri jakiñen gañian daude aspalditik. Badakite itza emana daukatala; eta itz ori jan baño nayago det ill. Beok egintako ezkontza da, ta ez det nik urratuko, mutil-zar orrek diru piška bat dubelako. Ez amona, ez. ¡Juan gizarajua! Len asko maite nuben, baña orain askozaz geyago.

Juan (*Burutik chestua kenduaz eta zelatatuaz. Aurreratzen da piška bat.*) (¡Ori da ori, naitasun egiya!)

Jošepa Neri bada, osabaren lagun ori, zenar-gai obia iruditzen zait, echeko morroya baño.

Karmencho ¿Morroya dalako? Morroi au, beorrek ondo esagutzen duna da; baño beste ori... esagutzeko daka oraindik.

Jošepa Bañan...

Juan (*Šeštua bota, ta batetan aurreratuz*) ¿Zer da, zer da? ¿Zer dijua?

Jošepa Ezer ez, ezer ez.

Juan ¿Ezer ez, e? Beorren asmoetatik ori da aterako duna: ezer ez.

Jošepa ¿Nik?

Juan Bai; entzun det guztiya; baño, zein da bizar luziak dituen amerikano orrek, ez da nere andregaitzaz jabetuko. Karmencho neria da, eta neria izango da.

Karmencho Bai.

Jošepa Ori: osabak eta nik nai badegu.

Juan Osabak eta beorrek, itz eman ziguten.

Karmencho Bai, amona, beorrek lenbizi itz egin ziran gauza ontaz.

Juan Beon baimenakin jarraitu genion naitasunesko bideari.

Karmencho Beon aginduakin.

Juan Eta Karmencho'k ni maite nau, eta neretzat izango da. Alferrik dabill amona.

Jošepa Ta amona esaten dit...

Juan Ala izango dalako.

Jošepa ¿Zuria? Etzait iduritzen.

Juan Asmua gure goguan sortu, ¿ta orain laga nai gaitu orrenbesterekin?

Jošepa Gizona, ezkontzeko orren amorratua bazaude, billatuko dizugu andre gai bat. Or dago Mugoitza'ko Mikela Antoni, edo...

Karmencho ¿Nola? Juan besterentzat? ¡Ez amona, ez!

Juan ¿Zer? Biyotza lišibako zatarren bat dala uzte aldu batera ta bestera astintzeko. ¡Ez! Nere biyotzaren zale bizi, sutsua, Karmencho'rentzat da.

Karmencho Bai nozki.

Juan Ta beste iñorentzat ez.

Jošepa Ara berriz iñosuaren aterakaiyak.

Juan Zer uste du, morroya naizela ta, nere biyotza biyurritu litekela, odol zipriztiñez estalirik? ¡Ez! Entzun beza ondo, Karmencho neria izango da, eta ez du berakin nai dunik egingo.

Karmencho Ez nozki.

Jošepa Begira, begira, nik agintzen det orrekin, eta zurekin ere bai...

Juan Gaurdaño bai; bañan onez aurrera ez.

Jošepa Egin zazu mezede nere begiyen aurretik alde egitia.

Juan Juango naiz; bañan gauz onek ez du luzaro iraungo. Nik jakingo det zer egin.

Jošepa ¿Zer esan dezu?

Juan Esan det. Eta Karmencho besteren eskubetan ikusi baño len, egin biar dana, egingo det. (*Juaten da atzetik.*)

Jošepa Zaude išilik. ¡Ausarta, ez besteren ausarta!

Amairugarren Irudia

XIII

Karmencho ta Jošepa

Jošepa Ikusi dezu nola lotzagabetu dan. Ona zeundeke, gašua, orrekin ezkonduko baziña.

Karmencho Beorrek jarria azi du orla.

Jošepa Bañan, ¿zertako zera orren zetoza?

Karmencho Beok ziran larriyena, Juancho'rekin ezkon arazitzeke; ta maitasuna artu diyotenerako, beste berriyakin datoz?... Barkilleruen kurpilla bezela, ¿erabilli nai al naute edo zer?

Jošepa Ez emakumia, ez; zure on bearrez da guztiya.

Karmencho ¡Nere ona! Nere ona len Juancho'rekin zegon... bada Juancho len bezin mutil ona da orain: langillia, leyala... dirurik ez izatia beste aitzekirik ez du gizarajuak.

Jošepa Orrengatik bada dirudunakin gabiltza orain, zure zorionaren billa.

Karmencho Bai, zekor tratua balitz bezela.

Jošepa ¿Bañan ez dezu ikusten? Karmencho...

Karmencho Begira amona...

(*Kataliñ azaltzen da atzeko atian*)

Jošepa ¡Šiii! (*Išil azten du*)

Amalau garren Irudia
XIV
Lenguak eta Kataliñ

Kataliñ (*Atzetik aurreratubaž*) ¿Zer egin dute marrubiyakin?

Karmencho Ara emen.

Jošepa (Bestiak bigalduko zuben)

Kataliñ Ekarkitzu.

Karmencho Tori. (*Karmencho'k ematen diyo otarra marrubiyakin*)

Jošepa Ipiñi itzazu ardotan azukre piška batekin.

Kataliñ Beorrek agindu bezela.

Jošepa Zintzo gero.

Kataliñ Bai andria. (*Juaten da atzetik.*)

Jošepa (Cheletatzea etorri da zirtzill ori. Erakutziko diyot bada nik...) (*Atzeko atetik begiratubaz*) (Iñosu arrek bigaldu du bai. Ikusi biar det orreatik)

Amabostgarren Irudia
XV
Karmencho gero Juan

Karmencho ¡Zorigaiztoko zeta galgarriya! ¿Zergatik nere biyotza orla biyurritu biar dute? Zer dala ta, nere naitasuna biartu nai au? ¡Ez det izan biar nere biyotzaren jabe!

Juan (*Atzetik batetan sartuaz*) ¡Karmencho!

Karmencho Oi, Juan (*Bere gana juanaž*) Juan neria.

Juan ¿Zuria?

Karmencho Bai; neria bai; ni zuria bezela.

Juan Amonak ordia...

Karmencho Alperrik dabill eta alperrik ibilliko da. Ez da iñor sortu askatuko dubenik zurekin lotuba naukan naitasunezko korapilloa.

Juan Itz oyek, nere barren illunean, argitasunaren errañu bizikorra sortzen dirate.

Karmencho Alperrik dabilela, berriz ere esango dizut bada: ¡Alperrik eta alperrik!

Juan Karmencho, zuri entzun ta, berriro jayotzen naizela iduritzen zait. Aištian, eriyotza bera baño illagoa arkitzen nuben nere buruba.

Karmencho Ez dezu orrenbeste larritu biar.

Juan Zu bakarra izan zera ludi ontan, zoragarritzko alaitasuna nere barrenen sortu dirana.

Karmencho Aurrera-re, nik alaitu ta zorion egingo zaitut.

Juan Umezurtza, beartsuba, aula ta argala; eguzkiyaren printza epelak lenengo nere begietara argiaren ikusmena ekarri zutenerako, goibel eta atsekabe azaldu zitzaitan guziya. Ez ditut ezagutu ama baten laztan zoragarriyak; aita baten ardura biguñak, ez det beñere jakin nolakoak diran. Jaberik gabeko gauza bezela, gizonen zapuzkeri artian amildu ziran nere lenengo urtiak.

Karmencho ¡Juan gizarajua!

Juan Iñork nai ez, alde guzietan ezin ikusiya; otza ta gosia besterik ez neukan; eta nere barrena, arkaitza bera baño gogorragoa egin zitzaidán. Koškortzen ni joan bezela, argiyago azaltzen zan nere atsekabezko biziera; bakarrik ikusten nuben nere buruba; guziyak nere kalte iduritzen zitzaizkitan; eta ala, bakartasun negargarri artan basurdia ortz zorrotzak erakutziyaz etsaien aurrian jartzen dan eran, ni ere alašen negon, besteen gaizki-nayak ušiatzeko.

Karmencho Kupigarriya zeunden.

Juan Etzegon kupirik neretzat, ez nik ere besterentzat...

Karmencho ¿Zergatik ez?

Juan Aserria, gaizki-naya, gorrotua, ez nuben besterik ulertzen bestietan, ez eta neronen goguan ere. Ta aserre biziz, amorruz, laya lurraren errayetan zanpatzen nuben; gorroto kiškalgarriyan achurrari ekiten niyon. Eta aserre lanarekin, aserre neronekin eta bestiekin; eche batetik alde, bestian sartu; zuben baserrira irichi nitzan.

Karmencho Etzenduben emen aserre ta gorrotorik arkitu.

Juan Egi, egiya. Ez det iñon izan emen bezelako ongi etorririk.

Karmencho Ez nozki.

Juan Eta emen, eche ontan, naitasunaren chinpart gartsuak, illa neukarren biyotza, pizkor eta indartzu pištu ziran.

Karmencho ¡Juan gizarajoa!

Juan Ametzetan ere, ez nuben ordu arte beñere nabaitu naitasunaren atsegin bizikorra; ez nekiyen zertzan alkar

ganako maitasuna, zure españ zoragarrietatik nere barrenara išuri zan arteraño.

Karmencho Badakizu bada orain.

Juan Zoratu biar zitzaidan. Erotuko nitzala uste nuben. ¡Zein atsegiñak diran, biyotzak sortzen dizkigun ametz estitsuak!

Karmencho Ametz oyek dira bada, gure etorkizuna azaltzen dizkigutenak.

Juan Bai, Karmencho...

Karmencho Ametz oyek lotu zituzten gure biyotzak, eta bizi guziyan lotubak geldituko dira.

Juan Bai, Karmencho: zure naitasunezko itzak lenengo entzun nitunian, ez dakit zer gertatu zan nere barrenen. Adierazi nai nizun nere poz eta atsegiña... Ez nekiyen ordia nola. Eta lanari ekin niyon gogotsuago eta bikañago. Nere lanarekin ordaindu nai nizkitzun zure nere ganako nai-onak.

Karmencho Ongi ordaindubak izan ziran.

Juan Etzan neretzako, ez gabik ez egunik ez egualdi char ez onik; ekaitzik gogorrenetan ere bulartsu ekiten nion lanari, nere lana zalako zuri egiten nizun emaitz maitekorra.

Karmencho Ta nik eskertzen dizkitzut emaitz šamur eta estitsuenak bezela.

Juan ¡Naitasunaren indarra zenbatez aundiyagoa dan gorrotoena baño! Zure naitasunak ematen ziran almenarekin, laya, len baño re ondorago sartzen nuben soroan; aitzurrak, lengo aldian zorrotzago ebakitzen zuben lurra; lan guziyak errešagoak iduritzen zitzaizkidan. Eta Igeldo'ko mendi-tontorra jasotzeko agindu baziraten, uste det bere errayetatik etengo nubela, zure oñetan ipintzeko.

Karmencho Kementsua zera.

Juan Bada, kemen ori guziya zure naitasunak ematen dirana da; ta zure naitasunari nik, gogotsu, eskeintzen diotana ordu guzitan.

Karmencho ¡Zein maitagarriya zeran Juancho!

Juan Ta oyek orla dirala, ¿uste dezu utzi nezayokela iñori, zu, nere besoetatik eramaten?

Karmencho ¡Ez, Juancho, ez!

Juan ¡Ez, Karmencho, ez! Ez du basakatuak bere umerik gordetzen, nik zu zaituko zaitutan alako indarrarekin. Alperrik ibilliko da zure amona, alperrik amerikano bizar luze ori, alperrik alkar artzen badute-re ludiko almen guziyak; etzaitu iñork nere besoetatik aterako.

Karmencho ¡Etzazula uste, iñork, zure besoetatik aterako nauenik! Ez Juancho, ez. Ill ere, zure besoetan egin nai det.

Amaseigarren Irudia
XVI
Lenguak eta Jošepa

(Jošepa azaltzen da atzeko atian)

Juan Zure naitasunak ematen diran indarrarekin, alperrik ausardituko dira...

Karmencho Išo... Amona...

Jošepa ¿Zer da, zer da? ¿Ez al daukazu soroan zer egiñik?

Juan Emen daude orain nere egipenak.

Jošepa Ez nazazula erneazi zure ichura gabeko aterakaiyak. Zuaz emendik lanera, ta utzi gaitzazu pakian.

Juan Karmencho gordetzen daukat nik orain lana naikua.

Jošepa Karmencho'k emen daukazki bere amona ta osaba, ta ez dezu zuk orrekin zer ikusirik.

Juan ¿Zer ikusirik ez daukatala? ¡Ia nork, nik baño geyago!

Karmencho Bai amona, Juan'ena naiz ni.

Juan Zeran bezela.

Jošepa Aski da. Ez degu geyago berriketik biar. Esan dizut juateko emendik lanera, ta alde egin-tzazu nere begiyen aurretik.

Juan Ez naiz juango.

Jošepa ¿Juango etzerala? ¿Orla erantzuten alzayo echekoandriari?

Juan Orla erantzuten diot nik, neria dan gauza bat lapurtu nai diranai.

Karmencho Juancho'rena naiz, bai, amona.

Jošepa Išo, zuk. Eta, zu: esku utzik etorri ziñan onera, zure murrutasuna besterik gabe, ta esku utzik alde egin biarko dezu, nere agindubak osatu biar ez badituzu.

Juan Esku utzik etorri nitzan, bai; ez det ordia alde egingo nere Karmencho'rik gabe.

Karmencho Ez Juancho: ez zuazela ni gabe.

Jošepa Aski da. Ni naiz emen echekoandria, ta nik agintzen det: Juancho: beriala, bañan beriala, echetik kanpora; ta zuri, biar dana esango dizut.

Juan Alperrikako itzak.

Jošepa Alde egiteko esan dizut, aidian gero.

Juan Ez naiz juango, gauzak zuzendu arte.

Jošepa ¡Ausarta, ez besteren ausarta! Echetik kanpora, beriala, beriala, alde emendikan.

Amazazpigarren Irudia

XVII

Lenguak eta Karlos. Azkenian Martzelo.

Karlos (*Atzetik sartuaz*) ¿Zer degu echekoandre? ¿Zer gertatzen da emen?

Juan (¡Madarikatua!)

Jošepa Zer gertatuko da. Petral orrek ez duela iñoren aginduik egin biar.

Karlos ¿Chachu au, al degu orain ere?

Juan Baztarrak nastutzera etorri dan chachua, zu zera, ta besterik iñor ez.

Jošepa ¿Ikusten? ¡Ta beriak aundiyaguak!

Karlos Echetik aidian bota biar dute iñosu ori. ¿Zertarako daukate emen?

Jošepa Esan ez dizut bada... Ez dubela juan nai.

Karlos ¿Ez dubela nai?

Juan Karmencho'rik gabe ez.

Karlos Nik agindu biar banu, juan biarko luke orreatik.

Juan ¿Zure gatik? Gezurra diyo zure muturrak.

Jošepa ¡Ikusten, zer lotzagabia!

Karlos Mutil, ez nazakala erneatu azi; bestela, belarriondotik eldu, ta or botako at chimistak egiten.

Juan Kaškarchua zera orretarako.

Jošepa ¡Lotzagabia!

Juan ¿Karmencho biar aldezu? Ez dezu bada izango.

Karlos Karmencho nai badiat, ez diat ire baimenaren biarrik.

Jošepa Ez nozki.

Juan Atoz bada billa.

Karlos Ire gatik, nai detanian.

Juan ¿Nere Karmencho'z jabetzera? Gezurra dek ori, atzapar abek dauzkatan bitartian.

Karlos ¿Zertarako?

Juan ¡I, itotzeko!

Karmencho Ez berotu geyegi, Juancho.
Karlos ¿Ik, ni ito? ¡Lenago chetuko at!
Jošepa Bai, biar. ¡Petrala, ez besteren petrala!
Karlos Atoz onera, Karmencho, neri aginduba zaude ta.
Karmencho Ez naiz joango.
Jošepa Biarko dezu.
Karlos Ta, onian nai ez badezu, gogorrian.
Karmencho ¡Ez!
Jošepa ¡Biarko!
Juan ¡Ator billa!
Karlos Ez badator bera, bai.
Jošepa Nozki.
Juan ¿Iretzat Karmencho?... ¡Beñere ez!

(Karlos'ek Karmencho'gana juatera bezela egiten du, ta orduban Juancho'k lepotik eldu ta itotzen du. Karmencho'k eltzen dio Juancho'ri, gelditu nayian. Jošepa sentzurik gabe erortzera dioa ta sartzen da Martzelo ta jasotzen du. Gusiyak batian oju ta karraši egiten dute)

Karmencho ¡Juancho, geldi, Juancho!
Jošepa ¡Ai ama, zer da au!
Martzelo Banekiyen zer gertatu biar zuben
Juan ¡¡Beñere ez!!

(Ješten da eskuta zapiya)

Bukatu da